



AZIDO-BASE

DILUZIOAK

DISOLUZIO BAT **DILUITZEAN** (URA GEHITZEA), SOLUTUAREN KANTITATEA EZ DA ALDATZEN BAINA BERE KONTZENTRAZIOA ALDATUKO DA DISOLUZIOAREN BOLUMENA ALDATU DELAKO.

$$v_{dsberria} = v_{ds} + v_{ura}$$



HASIERAKO DISOLUZIOA (1)

KONTZENTRATUA

SOLUTU-MOLAK n_1

DISOLUZIOAREN BOLUMENA V_{ds1}

DISOLUZIOAREN MOLARTASUNA $M_1 = \frac{n_1}{V_{ds1}}$

DILUITU ONDORENGO DISOLUZIOA (2)

DILUITUA

SOLUTU-MOLAK $n_2 = n_1$

DISOLUZIOAREN BOLUMENA $V_{ds1} \neq V_{ds2}$

$$V_{ds2} = V_{ds1} + V_{H_2O}$$

DISOLUZIOAREN MOLARTASUNA $M_1 \neq M_2$

$$M_2 = \frac{n_1}{V_{ds2}} = \frac{M_1 \times V_{ds1}}{V_{ds2}}$$

DISOLUZIO BATEAN SOLUTUA AZIDO EDO BASE BAT BADA URA GEHITZEAN, **DILUITZEAN**, AZIDO EDO BASEAREN MOL KOPURUA MANTENTZEN DA BAINA KONTZENTRAZIOA TXIKITUKO DA DISOLUZIOAREN BOLUMENA HANDITU DELAKO. ONDORIOZ, AZIDO EDO BASEAREN POTEREA ERE BAI TXIKITZEN DA.

*AZIDOAREN KONTZENTRAZIOA TXIKITZEN DENEZ BATERA HIDRONIAREN KONTZENTRAZIOA ERE TXIKITUKO DA ETA pH-a HANDITUKO DA.

***AZIDO BAT DILUITZEAN: $[H_3O^+]$ ↓ AZIDOTASUNA ↓ pH ↑**

*BASEAREN KONTZENTRAZIOA TXIKITZEN DENEZ BATERA HIDROXIDOAREN KONTZENTRAZIOA ERE TXIKITUKO DA ETA pOH-a HANDITUKO DA ETA pH-a TXIKITUKO DA.

***BASE BAT DILUITZEAN: $[OH^-]$ ↓ BASIKOTASUNA ↓ pH ↓ pOH ↑**